

**San Joan suak →**

San Joan bezperako usadio zaharrari eutsiz, Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko bizilagunek ongi etorria emango diote udari, urteko gaurik laburrenean.

# Akelarrerako gaua

**Erredakzioa**

**G**auerdirako su, gar eta txinpartek berotuko dute urteko gaurik laburrena. Ikusi ahalko diren dantzak, sua eta festa udako solstizioaren iragarle izango dira aurten ere. Hainbat eta hain-

bat txokotan suaren inguruan batuko dira herritarrak San Joan bezperan, hilaren 23an.

Herriz-herri, auzo, plaza eta zelaiak jendez beteko dira. Suaren bueltan, gainera, jana eta edana ez dira faltako: sardinak, txokolatea, txistorra, hirugiaria, txoria, urdaia, bakailoa eta beste

hainbat janari gozo egongo dira aukeran.

Usain berezia ez ezik soinua ere halakoa izango du gaurik laburrenak. Trikitixek, tinbalek, adarrek, fanfarriek edota batukadek girotuko dituzte bertoko bazterrak. Askok eta asko kalejiran hurbilduko dira su artera.

Norberak liburu, arropa, agiri eta behar ez dituen traste zaharrak etxetik eroan, eta garretan erreko dituzte bertoko biztanleek lagunartean. Gainera, udalerrri eta auzo batzuetan elkarren artean batuko dute San



Joan sua egiteko materiala. Hala, ume, gazte zein heldu, urteko gaurik berezietako baten elkarrekin gozatzeko batuko dira.

Askok suaren inguruan nekatu arte salto egingo dute, eta beste batzuk, ostera akelarrean dantzan ibiliko dira.

Euskal Herrian hain errotuta dagoen tradizioa mantenduz, suaren berotasunaren inguruan kontu kontari ibiliko dira herritarrak. Kantu, dantza eta barre algara artean agurtuko dute San Joan bezperako gaua.

**↓ Egitaraua, herriz herri****AJANGIZ (KANPANTXU)**

■ **21:00etan.** San Joan sua, eta sardina jana.

**AMOROTO**

■ **17:30ean.** Traste zaharrak batuko dituzte iluntzeko surako.

■ **20:00etan.** Elexalde auzoko kanposantuaren parean mokadutxo jango dute, Nahia eta Loriane trikitilarien soinuek lagunduta.

■ **21:00etan.** Sua piztuko dute Elexalden.

**ARRATZU**

■ **21:00etan.** Belendizen, San Joan sua; eta ostean, txokolate, hirugiaria eta txistorra jana.

**AULESTI**

■ **21:30ean.** kalejira plazatik parkera, Aulestiko Fanfarriak eta burhandiek alaituta; ostean, San Joan sua eta sorgin dantza, parkean.

**BERMEO**

■ **22:30ean.** Sabino Arana enparantzan, kultur taldek eta nahi duten guztiek San Joan kantak abestuko dituzte.

■ **Ostean.** Umeen sorgin dantza eta sua egongo dira.

**BERRIATUA**

■ **22:00etan.** San Joan sua, Errekondon.

**BUSTURIA**

■ **21:00etatik aurrera.** Presapen (San Kristobal). Trikitixa, txokolatea, suak eta dantzak.

**EA**

■ **19:30ean.** Natxitua auzoko Gurutzeganean San Joan sua.

■ **23:00etan.** Su artifizialak, antzerkia eta San Joan sua.

**EREÑO**

■ **22:00etan.** San Joan sua.

**ERRIGOITI**

■ **21:00.** Zallobante auzoan piztuko dute San Joan sua.

**ETXEBARRIA**

■ **20:00etan.** Herritarrak kalejiran irtengo dira udaletxe aurreko plazatik. Trikitilariak lagun-duta, urtero modura bi geldialdi egingo dituzte sua egingo den lekura ailegatu bitartean. Sua piztu ondoren, txalaparta eta trikitilariekin animatuko dute gaua.

**FORUA**

■ **20:30ean.** Udaletxe atzeko aparkalekuan. Foruko Bertoko batukada izango da.

■ **21:30ean.** Musika eta dantza suaren inguruan.

■ **Ostean.** Buruhandiak eta txokolate jana.

**GAUTEGIZ ARTEAGA**

■ **19:00etan.** Herritarrak sua pizteko geratuko dira. Ostean, zerbait jateko eta edateko aukera izango dute bildutakoek.

**GERNIKA-LUMO**

■ **20:00etan.** Malta enpresaren atzealdean euskal presoaren eskubideen aldeko San Joan sua piztuko dute. Jatekoa, edatekoa eta musika egongo dira.

■ **18:00etan.** Lurgorri auzoan egur bila joango dira.

■ **21:00etan.** Sua piztuko dute Lurgorri. Txokolate eta txitxi-burduntzi jana egingo dituzte.

**GIZABURUAGA**

■ **20:00etan.** Plazan batuko dira afari merienda egiteko; ostean suak pizten hasi eta jaiari hasiera emango diote.

**IBARRANGELU**

■ **21:00etan.** 21:00etan piztuko dute sua, urteen parkearen atzealdean dagoen aparkalekuan. Ogitartekoak eta txokolatea egongo dira.

**ISPASTER**

Auzoetan piztuko dituzte San Joan suak.

**KORTEZUBI**

■ **19:30ean.** Herriko plazan piztuko dute sua, eta ostean sardina jana egingo dute.

**LEKEITIO**

■ **20:00etan.** Kalerik kale Tratatula tinbaleroak.

■ **Eskola publikoak antolatuta.** 18:00etatik 21:00etara, txirrista erraldoia; 19:00etan, dantza emanaldia (balleta eta dantza modernoa); 20:30ean, Etorkizuna dantza taldeko dantzarien ikuskizuna; 22:30ean, sua piztea, kantak, dantzak eta musika; 22:45ean, suzko zezena; 23:00-etatik aurrera, berberna. Arratsaldean eta gauean taberna egongo da ogitartekoekin eta edariekin.

■ **R.M.Azkue Ikastola.** 21:15ean, adar jotzea; 21:30ean, bertsolariak, erraldoiak, sorginen kalejira eta Lekeitioko gaiteruak. Sorgin dantza, Donibane sua, eta jauziak. Ostean, suzko akerra.

■ **Ondoren.** Ateatik Isuntza hondartzara suzko kalejira Lekitoko Deabruak taldeagaz.

■ **R.M.Azkue Ikastola.** 21:15ean, adar jotzea; 21:30ean, bertsolariak, erraldoiak, sorginen kalejira eta Lekeitioko gaiteruak. Sorgin dantza, Donibane sua, eta jauziak. Ostean, suzko akerra.

■ **Ondoren.** Ateatik Isuntza hondartzara suzko kalejira Lekitoko Deabruak taldeagaz.

**MARKINA-XEMEIN**

■ **22:00etan.** Kalejira gaztetxetik Goiko Portalera; Goiko Portalean, sua piztu eta dantzak suaren bueltan; ostean, txokolate jana.

■ **Amallon.** San Joan sugarrak, sagarrak eta txapliguak. Fuochi D'Artificio Sella piroteknia italiarraren eskutik.

**MENDATA**

■ **19:30ean.** Eleizalde auzoan batuko dira. San Joan sua piztu eta sardina jana egingo dute.

**MENDEXA**

■ **21:00etan.** Sagardoa eta txorizo egosia. Ondoren, sua piztu, konjurua egin, eta suaren inguruan dantza egingo dute.

**MUNDAKA**

■ **18:00etan.** Errekan Sorgin Txikiren kalejira, eta ondoren erreketak.

■ **22:00etan.** Sorgina, Mosolo eta Katua agertuko dira plazan. Talara eraman baino lehenago Gaztezar dantza taldekoek dantzan egingo diote Sorginari, eta bere Mosolo eta Katu lagun-tzaileei, plazan.

■ **00:00etan.** Sorgin, Mosolo eta Katua Talan erreko dituzte. Mundakako Jose Mari Egileor txistulari elkartearen musikak alaituko du giroa.

**MURUETA**

■ **21:00.** Larrabe auzoko Malloa-Irukaraondon elkartuko dira. Umeen parkea egongo da, eta sua piztu ondoren sardina, txorizo eta txokolate jana egingo dituzte.

**MUTRIKU**

■ **21:30ean.** San Joan kalejira-aren hasiera. Irteera: Musika Banda musika eskolatik. Dantza taldea, akordeoilariak, txistulariak eta gaztetxeko jendea beheko plazatik.

■ **23:00etan.** Burumendin San Joan sua egingo da.

**MUXIKA**

■ **21:00etan.** Ajuria auzoan San Joan suak. Ostean, bakailao jana.

■ **21:00etan.** Ariatza auzoan

San Joan sua piztu, eta gero parillan prestatutako jana egongo da bertan bildutakoentzat.

**NABARNIZ**

■ **20:00etan.** Aberastegi atzeko parkean egingo dute San Joan sua; ostean, txistorra eta urdai jana.

**ONDARROA**

■ **22:00etan.** Herritarrek akelarrean parte hartzeko aukera izango dute. Nahi duenak Arrigorri hondartza ingurura urreratu beharko du Erdi Aroko erropekin jantzita.

■ **00:00etan.** Bolanderek, adarrek eta irrintziek Arrigorritik Akerra eta bere segizioa Musika Plazara datozela iragarriko dute. Ohikoa den modura, Alamedan lorak banatu ostean, Musika Plazan suaren bueltan ibiliko dira. Bertan, Bitxore Laka ekainaren 8an hil zen Artelane-ko «bihotzari» berba batzuk eskainiko dizkiote.

**SUKARRIETA**

■ **22:00etan.** Portuondobiden sua piztuko dute.

■ **Ostean.** Txokolate jana egongo da.

**ZIORTZA-BOLIBAR**

■ **20:30ean.** Sorginen eta pertsonaia mitolojikoaren etorrera eta antzezpena. Mari eta Maju Oiztik etorriko dira, Aker eta Ttartalo lagun dituztela; Laminak Urazanditik; Jentilak eta Galtzagorriak Altxiberraldetik; Sorginak Elizpetik; eta Basajaun eta Basandere Jauregibeitzik.

■ **Ondoren.** Jana: urdaia, txistorra, gazta eta irasagarra. Roberto Etxeberria eta Idoia Markaida trikitilariak.

■ **22:00etan.** San Joan suak, sorgin dantza, sorginak prestatutako edabea eta akelarrea.